

kintzailletza LEARTIBAI I 2025 I sariak

OINARRIAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETAKO IKASLEAK

Antolatzailea:



Kolaboratzaileak:



Leartibai Fundazioa toki garapenerako erakundea da. Bere helburua Lea-Artibai eskualdearen garapen ekonomikoa sustatzea da eta horretarako eragile publiko eta pribatuak ditu bidelagun.

Enpresa berrien sorrera bere misioaren parte izanik eta ekintzailatza kultura hedatzeko lanean diharduelarik, Leartibai Sariak 2025 ekimenaren baitan LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN NEGOZIO IDEIAK sarituko dira.

1.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lea-Artibai eskualdean kokatutako ikastetxeren baten, 2025-2026 ikasturtean **Lanbide Heziketako zikloren baten** matrikulatuta dauden ikasleek parte hartu ahalko dute lehiaketan. Taldeka edo banaka aurkezteko aukera izango da.

2.- SARIA

3 ideia onenak sarituko dira, 500€ eta garaikurrarekin. Bizkaia Gazteak Lea-Artibai egitasmoaren baitan, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Lea-Artibaiko 12 udalen eskutik 2 sari emango dira eta Asetten eskutik beste sari bat. Azken sari hau, desberdintasun arrakala murrizteko ideia onenarentzat izango da.

Sari ekonomiko eta garaikurraz gain, ideia aurrera eraman nahi izanez gero, honakoa eskainiko zaie saridun guztiei Leartibai Fundaziotik:

- Leartibai Fundazioko aholkularien laguntza, negozio-ideiaren garapen eta azelerazioan.
- Lea-Artibai Berrikuntza Gunean dagoen Enpresa Haztegiko espazioetan kokatzeko lehentasuna.
- Leartibai Fundazioak kudeatzen dituen programa ezberdinetan parte hartzeko erraztasuna.

Epaimahaiak horrela erabakiz gero, sari guztiak edo sariren bat eman gabe gera daiteke.

3.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Ideiaren izaera berritzailea, balio erantsia eskaintzea edo/eta originaltasuna
- Ideia baliagarria, bideragarria eta egingarria izatea
- Aurkeztutako dokumentuaren garapenaren kalitatea
- Informazio teknologien erabilera (proiektua aurkezteko beste bitartekoak: aurkezpenak, bideoak, musika, argazkiak,...)
- Garatutako ideiak inguruko gizarte arazoei modu berritzailean konponbidea emateko baliagarria izatea.

4.- EPEA

■ Ideia aurkezteko azken eguna: 2025/11/10

Data horren ondoren aurkeztutako ideiak ez dira baloratuko.

5.- EPAIMAHAIA

- Leartibai Fundazioko Ekintzailtzako lan-taldea
- Asetteko ordezkariak

6.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Inskripzio fitxa beteta.
- Ideiaren baloraziorako lagungarri izan daitekeen edozein dokumentu, irudi, ikus-entzunezko aurkezpen edo/eta bideragarritasun plana.

7.- SARI BANAKETA EKITALDIA

Gizaburuagan izango da, Udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

Azaroak 19, arratsaldeko 18:30etan .

Sariak jasotzeko, beharrezkoa izango da sari banaketa ekitaldira bertaratzea. Irabazleak bertaratu ezingo luketen kasuan, beste pertsona bat bertaratu beharko da bere orde. Sari banaketara inor agertu ezean, sari hori banatu gabe geratuko da.

Saridunarekin kontaktatzea ezinezkoa den kasuetan, hurrengo balorazio onena duen ideia izango da saritua.

8.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA INSKRIPZIO ORRIA

Inskripzio orriak beteta email honetara bidali beharko dira ymariezkurrena@leartibaifundazioa.eus, kasu bakoitzean beharrezko dokumentuak ere bertan atxikituz.

Edozein kontsulta telefonoz edo WhatsApp bidez erantzungo da, honako zenbaki honetara deituta/idatzita: 94 616 91 72.

9.- OHARRAK

- ✓ Saririk irabazi ez harren, ideia enpresa proiektu bilakatu nahi duten sustatzaileei aholkularitza zerbitzua eskainiko dio Leartibai Fundazioak.
- ✓ Martxan ipini nahi ez diren ideiak Leartibai Fundazioaren esku geratzen dira.